



Gaixotasun kutsakorrak ekiditeko jarraibideak

Moluskoak

Molusku kutsagarri hau azalaren gaineko infekzioa da eta aurpegi, sama, besape, beso eta eskuetan agertu ohi da, esku eta oinen ahurretan izan ezik.

Anpulo txiki zurixkak dira, erdian tontor txiki bat dute eta sakatzuz gero oso kutsagarria den likido zuria ateratzen zaie. Beraz, **neska-mutilak ez dira igerilekuan sartuko.**

Infekzio honek populazioaren %2 eta %10 bitartean afektatzen dio,

baina gehien ematen den taldea birus honen aurkako inmunitatea garatu ez duten 10 urte beherako neska-mutilena da, igerileku erabiltzaileak eta kontaktatu zuzena duten kirol batzuk praktikatzan dituztenak.

Kontaktatu fisikoa zuzena da kutsatzeko modurik ohikoena.

Lehen papulak agertzen direnean, zuen mediku edo pediatararengana jo behar duzue diagnostikoa ziurtatzeko, eta

dagokionean, tratamendua aplikatu.

Kutsatuta egonez gero, Heziketa Fisikoko irakaslea informatu beharko duzue idatzizko oharren bidez eta **ikaslea likrazko kamiseta edo neopreno mehe batekin sartu beharko dira igerilekuan.**



Papiloma

Oin-zolan agertzen den garatxo da, birus batek sortua.

Lurra eta azalaren arteko kontaktu zuzenarekin kutsatzen da, oinutsik egotean, baina ez uretan egotera.

Papiloma bat aurkitzen baduzue:

- Jo medikuarengana.
- Bidali oharra Heziketa Fisikoko irakasleari.
- **Igerilekura sartu daiteke papiloma oinean badago eta eskarpinak erabiltzen baditu.**



Inpetigoa edo ektima

Inpetigoa azalean agertzen den **gaixotasun bakteriano eta oso kutsakorra da**. Eraginik gehien bi eta bost urte bitarteko neska-mutilengan du.

Inpetigoa, beraz, azalean agertzen diren baba edo besikulak dira, eta apurtzerakoan ezti koloreko zarakarrak sortzen ditu. Gor-

putzeko edozein tokitan agertu daitezke baina ohikoena da arropak estaltzen ez dituenetan agertzea, hau da, aurpegia, aho inguruan, sudurrean, belarriak, besoak eta hankak. Ez dute orbainik uzten baina pigmentazio aldatuak sortu ditzakete.

Infektatutako pertsonak 48 orduz antibiotikoa hartuz gero, normalean, bakteria kutxatzeko arriskua kentzen da.

Egoera honetan dauden **umeak ez dira Ikastolara etorri behar**, epe hori amaitu arte, **eta igerilekuan sartu babak lehortu arte.**

Igerilekuan gaixotasun kutsagarriak ekiditeko jarraibideak

- ◆ Umeek ez dituzte eskuoihalak konpartitu behar ezta aldagela edota igerilekuko lurrean utzi ere.
- ◆ Beti eraman behar dituzte txankletak jantzita eta ez dira oinutsik joan behar.
- ◆ Ondo lehortu behar dute
- ◆ gorputz osoa, bereziki oinak. Hezetan onddo eta papilomen agerpenari laguntzen dio.
- ◆ Igerilekuko espazio guztietan eskarpinak erabil ditzaten gomendatzen dugu.
- ◆ Igerilekuko arropa eta tres-
- ◆ nak gutxienez astean behin xaboiarekin garbitu behar dira. Gero, ondo lehortu (txano eta eskarpinak, alderantziz).
- ◆ Igerilekuko arropa hezeak ez du luzaro motxilan sartuta egon behar .